



ARRAINAK ETA ITSASKIAK: ETIKETA



 **Arrain freskoak** daraman etiketan, kartean edo oholtxoan jarraian ematen den informazioa **nahitaezkoa**, **irakurterraz** eta **ezabaezina** izan behar da.

 **Komertzializazio prozesu** osoan zehar **ezinbestekoa** da: salgai jartzen denetik azken kontsumitzaileak erosi arte, baita garraioan zehar eta banaketan ere.

 Bertan aurkituko dituzu produktuaren **ezaugarri** eta **jatorri** buruz behar den informazio guztia.

Etiketa baten adibidea

Produktua **desizoztua** izan bada, etiketan agertu behar da.

ARRANTZA-EREMUAK

- ↯ Atlantikoa (Ipar-ekialdea)
 - Azpizonaldea / Barrutia: _____
- ↯ Mediterraneoa eta Itsaso Beltza
 - Azpizonaldea / Barrutia: _____
- ↯ Gainerako arrantza-eremuak
- ...

PRODUKZIO METODOA (3 mota daude)

1 HARRAPATUA

2 UR GEZATAN HARRAPATUA

3 HAZKUNTZAKOA

ARRANTZA-APARAILUAK

- ↯ Tiro-sareak
- ↯ Arrastre-sareak
- ↯ Mailasareak eta antzekoak
- ↯ Inguraketa-sareak eta sare jasoak
- ↯ Hariak eta amuak
- ↯ Dragak
- ↯ Nasak eta tranpak
- ↯ Beste batzuk: _____


UR MASA (ibaia, lakua, etab.) eta JATORRIZKO HERRIALDEA

EKOIZPEN HERRIALDEA

Desizoztua

P.S.P. €/KILO

Izen komertziala eta izen zientifikoa

 **Borondatezko informazio gehigarria:** harrapaketa edo bilketaren data; porturatu edo lehorreratu zen data; arrantza-aparailu motari buruzko informazio zehatza; ontziaren bandera; ingurumenari, etikari edo gizarteari buruzko informazioa; ekoizpen teknikak eta praktikak, eta nutrizio-informazioa.